

Xarlan
8

Goldaratz eta Goldaratzarrak
D.B.H. 2
Eduine apalera dlo
Jan 1945
271845

GOLDARATZ TA GOLDARAZTARRAK



GOLDARATZ TA GOLDARAZTARRAK

Iruñeatik Donostiarako bidean, Bi Ahizpeko pasagunea pasatu ondoren, ezker aldeko mendi tontor batean, zerutik zintzilik bezala herri txiki bat aurkitzen da, Goldaratz da bere izena. Hemen, gutxi gora behera, 30 biztanle bizi dira. Beren hizkuntza euskera da eta goi-nafarreraz hitzegiten dute. Gehienek nekazaritzan eta abeltzantz egiten dute lan.

Testu honetan parte hartu duena familia bat da, aita, ama eta lau seme-alaba eskola adinean.

"Hemen lana geina emateutenak animalik de: beiek, ardik, txerrik, olloak. Go iuneroko lana hau izatea: goizin zazpitan jeki, desaunatu ta beiek jextea, azpik garbittu ta jana eman, belarra o pentsu. Beiek ukullun dai, lepotik lotuta ta aurrekoaldin ganbelaat, jana han jartzeko. Ure beste ganbelastin. Beiek jexteko ordeñadora duu ta eseni tanke frigorifikostin gordetzen duu letxeroa etorri arti. Aparte, txakorrak e battuu ukullu bian, baño aparte korralastin lotugai. Emik balen bade, aurreako uzten ttu ta zezenak beez saldu.

Ia behien lanak akaatu ta ardita. Ardik beste bordastin dauzki baño hurbil, itxiin ondoan. Hok axurik jaiotzeko tenporadan lana geina ematiute. Askotan laundu behar zaiote jaiotzen ta geo aman tittin jarri eseni eateko. Axurik e battzuk aurreako ta besteatzuk saldu pixkoat haunditzen deenin. Ordun ardik jexten hasten gaa, eskuz, ordeñadora gai, ta behien eseni bezeña beste tankietin gorde letxeroa etorri arti. Gaztare itten duu, itxin jateko behar duuna. Geo jana eman

ta behar baa azpii pixkoat garbittu ta gosaltzea joaten gaa.

Ordurako umik ia eskolaa joan de. Irurtzuna joaten de, taxi batek eramaten tto. Bazkaldu be artan ittiute ta atseldin buelta lauterditan.

Gosalduta, txerriri ta olloei jana eman ta garbittu behar-baa, Txerrik txertoritan dauzkio ta umik ittekoan lana pixkoat ematiute, gabin asten bade binipin, gabe guzi igual han pastu beauzo, giñeakoan azpin arpatu ta hil igual itten de txerkomik. Txerrik ume asko ittiute, igual hamar o hamabi. Txerkomik e geinak saldu itten ttu, batzuk jan e bai. Txerri haundik e urtero bat o bi gizentzen jartzen ttu, geo hiltzeko. Txerrihiltzi negun itten duu, egoaldi freskoakin. Lan hontaako beste itxiitako gizonan beharrak izaten ttu, txerriiri heldu behar baizeio ta sujetatu mai o kutxeaten gañin txerriiltzaliik labana sartzeko lepotik ta odola al den guzii palanganaatin hartzeko, nasiz pixkoat oztuarti. Geo, lastoa gañen jarri ta su eman. Geo garbittu, tripek atea, txerrii partitu, tripotak in, txistorrak e bai, ta hola, bi iunez lanak ezin akaatuz?"

"Txakurrek e battu!"-orain esaten du Iosu ttikiak-"bi gañea, bat Txikiton ta besti Romario."-joaten da lasterka ta etortzen da Romario txikia, beltz-beltze, eskuetan hartuta. Esan didate txakurrek ardieta asko laguntzen dutela. Gero, aitzak hitzegiten jarraitu du:

"Geo, illuntzin beez beiek ta ardik jetxi behar de, ta jana eman ta beste lan guzik goizin bezala."

Orain nekazaritza arloan egiten dutena esplikatzen didate:

"Hontan lanik handiina udan belarrak biltzi izatea. Belarra segadorakin moztu ta sekatzeeenin enpakadorakin bildu ta itxia eaman. Lan hau junioan ittea, ta egualdi ona badau hogei iunez

akaatzen du. Belarra beiek ta ardik jatiute, baño ezta urte guziako allaatzen. Behar baa, iosi itten duu. Aparte, baatzan urte guzin izatea zerbatte in beharra. Patatak, banaarrak, berdurek, litxuk,... itxin jateko behar deenak."

Galdetu diet ea gogorra egiten zaien bizimodu hau eta honako hau esan didate:

"Bueno, gu beti hemen bizitu ga ta oituik gai holako lane-tan. Goorrena da iun bat jai ez izati. Gañea,goain Gobernuu beiek kenduazten ai da ta ez dakiu ze pastukoen gookin."

Horrela amaitu zen familia honekin izan nuen elkarrizketa. Honen ondoren, Romario eta Txikiton-ekin jolasten ibili nintzen eta etxekoandreak barazki eta txistorra mordo bat eman zizkidan. Haiengandik agurtu nintzen eta nire etxera abiatu nintzen nire esperientzia berriak idaztera.

HIZTEGIA

- Azpik: behiek kaka eta aber egiten duten lekua.
- Banaarrak: babarrun
- Beez: berriz
- Bian: behean
- Eseni: esne
- Ganbela: behientzako janaria eta ura jartzen den lekua.
- Ganbelaat: ganbela bat.
- Goain: orain
- Itxi: etxe
- Iun: egun
- Mai: mahai
- Nasiz: nahasiz.
- Lotugai: lotugabe
- Txertoria: txerriak dauden lekua.(pocilga).

Izen-daturak: Edurne Apalauza Olló

Helbidea: Iturrana 10-4^aA. 31007.

Tefua: 271845

Maila: O.B.H. 2,

Ikastetxearen izena: Ikastola San Fermin